



# ORRI INFORMATIBOA



Igeldoko Herri Kontseilua - Itsas Aurre Kultur Etxea. Herriko plaza Z/G. IGELDO  
Tfinoa.: 943-31 30 30 e-posta: [infogeldo@euskalerrria.org](mailto:infogeldo@euskalerrria.org)



## AURKIBIDEA

Kixmi aisialdi taldea /2

Igeldoko Gaztiak /2

Ieltxo kultur elkarteak /2

**Herrian ze berri?:**

IHK berria osatu da /3

Elkarrizketa: Juankar Izagirre  
Donostiako alkatea /4

San Pedro Jaiak 2011 /5-7

Bota Puntua /12

## ERREPORTAJEA:

## IGELDOKO

## ARRAUNLARIAK /8-11

Kaixo herrikide!!!

Igeldok badu ordezkari berria. Osatu da Herri Kontseilu berria eta ale honetan, hauteskunde eguna nola joan zen, 7 kideak zeintzuk diren eta emaitza guztiak nola izan diren azaltzen dizugu.

Horrez gain, jakingo duzun bezala, Juankar Izagirre igeldotarra,

Donostiako alkate da ekainaren 11z geroztik eta Orri Informatiboak elkarrizketa motz bat egiteko aukera izan du.

Bestalde, herriko festak izan ditugu azken aletik hona eta horiei ere tartetxo bat eskaini nahi izan diegu. Hainbat argazki bildu ditugu,

besteak beste.

Eta estropada garaian bete-betean gauden honetan ezin ahaztu gure arraunlariak! Denboraldi honetan 9 arraunlari igeldotar dabilza arraunnean, lau talde eta lau mailatan banatuta eta Orri Informatiboan beraien bildu da. ■

## 24 haur Kixmirekin, udaleku irekietan

Urtero bezala, Kixmi aisialdi taldeak udaleku irekiak antolatu ditu uztailean zehar eta aurten, 24 haur ibili dira. Horietatik, 15 txikiak izan dira eta 9 zaharragoak. 2 urte eta 8 urte arteko haurrak ibili dira jolasten eta ekintza ezberdinak egiten Kixmiko begiraleekin. Bi taldetan banatuta egin dituzte udalekuak eta begiraleek oso positiboa izan dela azaldu dute, zaharrenak gustorago ibili direlako horrela. Jasone eta Mikel Urruzola, Oihane Arruti eta Maria Cruz izan dira begiraleak. ■



## Pelikula eta dokumentalak ikusgai ostiraletan, gazteen eskutik

Ostiraletan, zineaz gozatzeko aukera dago Itsas Aurre kultur etxean, izan ere, Igeldoko Gaztiak pelikula eta dokumentalak eskaintzen ari dira. Gai sozial eta politikoei buruzko pelikulak dira, informatu eta hausnarketarako bidea emateko asmoz. Datorren emanaldia abuztuaren 5ean izango da: *V de Vendetta*. Pelikula guztiak gaueko 22:00etan dira, palomitek lagunduta. Aste Nagusia dela eta, hurrengo abuztuaren 26an izango da. Emanaldiak gazteek antolatu arren, herritar guztiei

zuzenduta direla azpimarratu dute eta azaltzeko dei egiten diete denei.

### Asanblada irekia, abuztuaren 4an

Abuztuaren 4an, asanblada irekia izango da Igeldoko gazte guztiei zuzenduta: *Nolako Igeldo nahi duzu?* Gazte guztiak azaltzeko dei berezia egin dute. 19:30etan, lokalean.

Bestalde, gazteek kamiseta, metxero eta txapak atera zituzten festetan eta gogorarazi dute oraindik erosgai dardela Txapela tabernan. ■

## Ikastaroetako matrikula egiteko epea, irailean irekiko da

Ieltxo kultur elkarteak hainbat ikastaro antolatu ditu 2011-2012 ikasturterako. (Ikastaroerik buruzko orria banatu zen etxeetara). Elkartetik jakinarazi dutenez, ikastaro horietan interesa dutenek, irailean eman behar dute izena. Matrikula egiteko epea irailaren 1etik 15era egongo da zabalik, hain zuzen. ■



# Osatu da Igeldoko Herri Kontseilu berria

Honako 7 kidek osatzen dute Herri Kontseilua: Ramontxo Urruzmendi, Igor Arrieta, Jon Uzkudun, Iñaki Marko, Ioritz Galparsoro, Iker Zinkunegi eta Gurutze Dorronsoro.

Aurreko alean adierazi moduan, ekainaren 19an jaio zen herri ordezkari berria. Aurtengo udaberrian, aspaldi egin beharreko berrikuntza prozesua martxan jarri zen eta azkenean muturreraino iritsi zen hauteskundeekin. Sortu berri den Herri (administrazio) Kontseilua, 7 kidek osatzen dute, aurkeztu ziren 23 hautagaietatik bozka gehien jaso zuten lehen 7ek. Zentsuaren arabera, 827 herritarrek zuten bozkatzeko eskubidea eta horietatik 381 herritarrek eman zuten botoa, hau da, % 46ak.

### Egun guztian, herritarren joan-etorria

Hauteskunde mahaia irekita egon zen goizean 09:30etatik 14:00ak arte eta arratsaldean 16:30etatik 19:30ak arte Itsas Aurre kultur etxean eta herritarren joan-etorria nabarmena izan zen egun guztian zehar. Arratsaldeko 19:30etan, boto kontaktari ekin zitzaion eta bi ordu behar izan zituzten boto guztiak kontatu eta akta hartzeko. Lan horretan ordura arte Herri Kontseilua osatu zuten kideak aritu ziren.

Bitartean, kanpoan, herritarren artean jakinmina zen nagusi eta plazan prestaturiko luntxari esker, gosea behintzat asetzeko aukera izan zen. Esan bezala, gaueko 21:30etan aurkeztu ziren emaitzak eta herritarren txaloen artean onepena jaso zuten aukeratutako 7



Botoak kontatu bitartean, luntx ederraz gozatzeko aukera izan zuten herritarrek.

kideek. Honako hauek izan ziren: Ramontxo Urruzmendi 134 boto jasota eta kontseilu burua, Igor Arrietak 121 boto, Jon Uzkudunek 96, Iñaki Markok 83, Ioritz Galparsorok eta Iker Zinkunegik boto kopuru berdina jaso zuten, 70, eta Gurutze Dorronsorok 58. Aipatutako hauek izango dira beraz, datozen lau urteetan Herri Kontseiluko kideak eta guztiak seguru, lanerako gogo eta ilusio handiz hartuko dutela duten konpromiso berria.

Hala ere, aipamena merezi dute, nola ez, hautagai izan ziren beste 16 herritarrek ere. Nahiz eta ez lortu beharrezko boto kopurua, ziur herrigintzan lanean jarraituko dutela guztiek, orain artean bezala. Beraz, ZORIONAK denei! ■

### HAUTESKUNDE EMAITZAK:

<b>Ramontxo Urruzmendi</b>	<b>134 boto</b>
<b>Igor Arrieta</b>	<b>121 boto</b>
<b>Jon Uzkudun</b>	<b>96 boto</b>
<b>Iñaki Marko</b>	<b>83 boto</b>
<b>Ioritz Galparsoro</b>	<b>70 boto</b>
<b>Iker Zinkunegi</b>	<b>70 boto</b>
<b>Gurutze Dorronsoro</b>	<b>58 boto</b>
Jon Lizarazu	56 boto
Karmele Garmendia	49 boto
Ainhua Gorostidi	49 boto
Larraitx Dorronsoro	48 boto
Ainhua Uranga	35 boto
Amaia Agirre	33 boto
Iñaki Etxeberria	32 boto
Aitziber Gabilondo	29 boto
Maidier Illarramendi	28 boto
Imanol Illarramendi	27 boto
Asier Sota	25 boto
Nerea Lizarralde	24 boto
Eneko Dorronsoro	21 boto
Amaia Sansinenea	21 boto
Imanol Gomez	16 boto
Garratz Atxalandabaso	12 boto

# Juan Karlos Izagirre Donostiako alkatea: "Oraindik ere kostatzen da egiten zait sinestea Donostiako alkate naizela"

### Nolaz animatu zinen politikagintzan sartzeraz?

Askotan esan izan dut politika egin, egiten nuela lehen ere, baina "kale politika" deritzoguna. Zerrendetan sartzearena guztiz zirkunstantziala izan zela esan daiteke. Egoera antidemokratiko baten aurrean sortutakoa. 40.000 pertsona zeuden Euskal Herrian aurkeztu ezin zutenak, eta horren aurrean nire burua eskaini nuen, besterik ez. Ilegalizazioaren ondorioa izan zen, zalantzarik gabe.

### Alkate izatera iritsiko zirela pentsatu al zenuen aurrez?

Guk emaitza onak espero genituen. 8 zinegotzira iristea oso emaitza ona bezala aurreikusten zen. Baina PSEk hainbeste jaistea ez genuen espero. Garbi dago aldaketarako grina bazegoela Donostian, eta Euskal Herrian.

### Zer sentitu zenuen Atanon, emaitzak jakitean?

Bi sentimendu nagusitzen ziren. Poza BILDUK izandako arrakastarengatik. Eta konturatzerakoan pertsonalki zer suposatu behar zuen niretzako, zama handiegia izango zelaren sentsazioa.

### Eta ekainak 11n alkate makila eskuan hartzean?

Poza. Bertigo pittin bat ere bai agian, baina ilusioa nagusitu zen. Eta herriarekin (han bildutakoekin) konpartitzeko gogoia.

### Eta hurrengo goizean, ekainak 12an, esnatzean?

Egunerokoa galdetu behar al didazue? Oraindik ere kostatzen da egiten zait sinestea Donostiako alkate naizela. Ni Juankar naiz, garbi daukat, eta horrela segitu nahi dut.

### Nola ikusten da Donostia Udaletxeko bulegotik?

#### Eta etxeko balkoitik?

Udaletxean zaudenean ez duzu gehiegi begiratzen kanpora. Nahikoa duzu bilerak, prentsa, bilera gehiagorekin... Bista zoragarria da, baina nik, agian Kamiokoa nahiago.

### Eta nola ikusten da Igeldo Udaletxetik?

Urruti... beste herria izango balitz bezala. Donostiako Udaletxea handia da oso. Eta badakizue nik txikitasuna asko maite dudala.

### Igeldotar bat Donostiako alkate izateak zer pentsaturik ematen al dizu?

Niri hor nonbait, baina jende askori zer pentsa asko, gehiegi. Horrela tokatu da eta ez diot garrantzi gehiagorik ematen. Donostiako alkate izateko leku askotako jendea aurkeztu izan da urte guzti hauetan.

### Zer da bereziki lau urtetako agintaldian landu nahiko zenukeena?

Garbi daukagu politika egiteko modua aldatu egin daitekeela, eta horretan saiatuko gara. Politika parte hartzeailleagoa, herria ondo informatu, eztabaida piztu eta erabakitzeke aukerak eman. Ezkerreko politika egin



Juankar Izagirre, inbestidura egunean, alkate makila eskutan.

nahi dugu: pertsonen eskubideak bermatuz, zerbitzu sozialak eta publikoak indartuz, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko apustua eginez, gazteak, jatorri ezberdineko pertsonak kontutan hartuz, ... eta euskera eta euskal kultura bultzatuz.

Beste aldetik, Euskal Herrian ireki den normalizaziorako prozesua babestu eta indartu egin beharra daukagu.

### Azkenaldian, geroz eta jende gehiagori entzun diot, asko gustatzen zaiela zure hitz egiteko modua eta izaera; ze, Odon bezala, luzerako estrategia prestatzen?

Ezta pentsatu ere!! Lehen esan dut ni Juankar naizela, eta medikua naiz, eta nire burua berriro ere nire betiko erritmoan ikusten dut hemendik lau urtetara. Ziur nago ordurako egoera normalizatuta egongo dela (ilegalizazioari gabe behintzat) eta beste batzuk jarraitu beharko dute. Asmoak hauek dira... baina beste aldetik, nor esango zidan orain dela 4 hilabete hemen egongo nitzala? Bizitzak sorpresa ikaragarriak ematen ditu!

### 2016an alkate izango bazina, zerbait berezia pentsatu al duzu Europako Kultur hiriburuan egiteko?

2016ko gaien egin beharrekoak, nire ustez, orain hasita egin behar dira. Bidea da ondo jorratu behar dena. Garrantzizkoena ez da 2016 bera, tarte honetan landuko direnak baizik. Eta garbi daukagu aukera paregabea dela gure hizkuntza eta kultura munduari erakusteko, normalizazio prozesua indartzeko eta ezberdinen artean gauzak batera egin daitezkeela demostratzeko.

### Astoari egunero egunkaria irakurtzen zeniola esan zenigun noizbait, orain ba al duzu denborarik horretarako?

Astoari egunkaria irakurtzea baino gauza osasuntsuagorik ez dago. Estresaren aurka egiteko behintzat. Gainera, normalean ez da zure aurka jartzen... Eta eskertzen da, ez pentsa! Orain desinformatu samar daukat, denborarik ez, ... ■



## Bederatzi egun, jo eta su!

Ekainaren 19an Igeldoko Igoera herrikoiarekin hasi eta uztailaren 3an, bereak emanda bukatu ziren Igeldoko San Pedro Jaiak, izan ere, bederatzi egunetan atsedean hartzeko aukerarik ez zen izan: pelota, futbol, toka, ping pong... txapelketak, San Joan eta Santa Ixabel eskeak, zaldi eta idi demak, barrikotea, herri bazkaria, kontzertuak, bertsoak, umeen eguna, gazte eguna...

Ondorengo hiru orrietan, festetan ateratako hainbat argazki bildu ditu Orri Informatiboak; baita jokatu diren txapelketa eta herri kiroltako emaitzak ere, besteak beste.

### Txapelketa eta herri kiroltako emaitzak

Igeldoko XXXI. Igoera herrikoa Ion Arzubialde donostiarrak irabazi zuen 0:25:41 denborarekin. Emakumezkoetan berriz, Josune Etxezarreta andoainarra izan zen azkarrena 0:36:42 denborarekin. Igeldotarren artean, Aitor Etxeberria izan zen lehenengoa, iaz bezala. Denbora: 0:29:45. Eta emakumezkoetan, Edurne Iriondo: 0:47:05.

Igeldoko Pelota Txapelketari dagokionez, eskuz, Joritz eta Aitor Etxeberria anaiak izan dira aurtengo txapelkunak, eta palaz, Julen Iribar eta Iker Dorronsoro.

Areto Futboleko Txapelketan, berriz, Mikel Harategia taldeak irabazi du aurtengo kopa.

San Pedro egunean, herri kirolak izan ziren eta aizkoran lehiatu ziren Joxe Etxebeste eta Joxe Mari Olasagasti igeldotarrak, Donato Larretxea eta Arkaitz Jauregiren aurka. Azken horiek irabazi zuten.

Pelota partidu ederra ere izan zen



Beñat Arzelus-Joritz Etxeberria eta Aitzol Fernandez-Ibai Jauregiren artean. Lehenengoek irabazi zuten.

Aurten ere, Toka Txapelketak ez du hutsik egin eta Aitzol Fernandez antiguatarrak eraman zuen kopa, 3 jota. 20 parte hartzaile izan ziren.

Idi deman, Joxe Mari Olasagasti eta Pedro Joxe San Sebastianen idi pareak neurtu ziren 2.000kg-ko harriarekin. San Sebastian nagusitu zen 48 plaza eginda. Olasagastik 41 plaza, 7 zinta eta 2,82m egin zituen.

Gazte Egunean, joku ezberdinen txapelketak izan ziren. Emaitzak, honakoak: ping-pong, Gorka Azpiroleak irabazi zuen, Wii txapelketan Imanol Arrutik eta musean, Ainhoa Uranga eta Oier Iraolak. Sariak, ondoren egin zuten bertso afarian jaso zituzten.



Lehenengo aldiz, Tiragoma Txapelketa ere izan da eta 12 lagunek hartu zuten parte. Urtzi Etxebeste izan zen irabazlea.

Santa Ixabel Egunean, zaldi dema antolatu zuen Jai Batzordeak. Etxetxo eta P.J. Saizarren zaldia ziren lehiatzeakoak 700kg-ko harriarekin, baina lesio bat tarteko, Saizarren zaldiek ezin izan zuten parte hartu. Etxetxok 84 plaza lortu zituen.

Azken egunean, Bakailu Tortilla Txapelketa egin zen, estreinakoz, eta Xeles Illarramendiren tortilla izan zen onena, 8 parte hartzailearen artean.



## Ume egun arrakastatsua

Ekainaren 28an Umeen Eguna antolatu zuen Kixmi aisialdi taldeak eta oso balorazio positiboa egin du. Eguraldi ona ez egin arren, ginkanan parte hartze handia izan zela azaldu dute eta adin ezberdinetako umeak animatu zirela, 4-12 urte bitartekoak, hain zuzen. Bazkariak erabateko arrakasta izan zuela azpimarratu dute. Din din elkarteak bete zuten. 47 haur izan ziren eta hainbat guraso ere bai, sei urtetik beherako haurrak ere, bazirela eta.

## 60 lagun Gazte Eguneko afarian

Igeldoko gazteek Gazte Eguna ere antolatu zuten ekainaren 30ean eta sortutako giroarekin pozik daude. Joku ezberdinen txapelketetan gazte dexte ibili zen eta adin ezberdinetakoak. Afarian 60 bat lagun elkartu ziren eta Imanol Lizarazu eta Unai Gaztelumendi bertsolariek saltsa ederra jarri zuten Din din elkarteak. Afalostean, berriz, 3gabe2 taldeak jo zuen plazan. Sortutako giroarekin gustora egon arren, adin tarte ezberdinetako herritar gehiago ez animatu izana bota dute faltan Igeldoko gazteek.

## Hasieratik giroa, herri bazkarian


Santa Ixabel egunean herri bazkaria egin zen frontoian eta urtero bezala, giro ederrean igaro zen bazkaria. Guztira, 115 pertsona bildu ziren arkumea burduntzi eran erreta jatera eta saltsa hasiera hasieratik izan zen, eskean ateratakoak trikitixarekin sartu baitziren frontoian. Ondoren, dultzaineroek alaitu zuten bazkaria eta herritar ugari animatu zen dantzatzera.

## Imanol Areizaga gogoan

Azken egunean, Umeen trikitixa emanaldia izan zen eta emanaldia, Imanol Areizagaren omenez egin zen. Denera, 68 umek hartu zuten parte. Umeez gain, helduek ere jo zuten ondoren. Guztira 40 bat lagunek hartu zuten parte. Horrez gain, senideei, oroigarri eta lore sorta eman zitzaizkien. ■







ERREPORTAJEA: IGELDOKO ARRAUNLARIAK



Orri Informatiboko kideek prestatutako afari ederraren bueltan elkartu ziren Igeldoko 9 arraunlariak.

Estropada garaian sartuta gaude eta Igeldon 9 arraunlari ditugunez, Orri Informatiboa beraiekin bildu da denboraldia nola ikusten duten jakiteko, bakoitzaren maila eta taldeari begi-

ra. Arraunean nola hasi ziren eta zein helburu eta amets dituzten ere galdetu diegu. Elkarrizketa uztailaren 18an egina da, beraz, zenbait datu agian atzeratuta geratu dira.

## Lau talde, lau maila eta bederatzi helburu, herri batean

Igeldon trainerua besterik ez dugu falta, izan ere, arraunlariak badira bai. Gaur egun, bederatzi igeldotar dabilta arraunean. Bederatzi arraunlari ditugu, lau talde eta lau mailatan banatuta. ACT mailan, gizonetzkoen gorengo mailan, Jon Lizarazu, Egoitz Etxebeste eta Iñaki Garmendia dabilta San Pedro taldearekin. Haritz Etxebeste ere maila berean dabil, baina Orrio taldearekin. Euskotren Ligan, emakumezkoen gorengo mailan, berriz, Ainitze Illarramendi dabil Getaria-Tolosa traineruan. Jon Enbil da beste arraunlari igeldotarra. ARC-1 mailan, Donostiarran ikusi dezakegu. Eta ARC-2 mailan, gainerako 3 arraunlariak: Joxe Mari Uranga, Joritz Etxeberria

eta Aitor Etxeberria. San Pedron dabilta azken horiek ere.

### Ainitze eta Haritz, 6 urte arraunean

Esperientzia gehiena duten arraunlariak Ainitze Illarramendi eta Haritz Etxebeste dira. Ainitzek 6 urte daromatza arraunean. Aitarengatik hasi zen, hura ere arraunean ibilia baita (Imanol Illarramendi) eta probatzeko esaten zion. Hondarribia taldean hasi zen, mobilean neskak zeudelako eta Donostian ez. Denboraldi honetan berriz, Getaria-Tolosan dabil.

Haritzek ere aurtengo denboraldiarekin 6 urte egingo ditu arraunean. Lehengusu bat Orion aritzen zen arraunean eta haren bitartez hasi zen,

Orion bertan. Aurretik futboleko ibilia zen, baina hiru bat urte kirolik egin gabe zegoen eta konpetitu eta obligazioz kirolen bat egiteko gogo sartu zitzaion. Hasi zenez geroztik, Orion jarraitzen du, nahiz eta lehenengo 3 urteak Getarian egin zituen, Orioren bigarren traineruan.

### Joan den urtea, arraunaren urtea Igeldon

Iñaki Garmendia, Jon Lizarazu, Egoitz Etxebeste eta Joxe Mari Uranga, joan den denboraldian hasi ziren. Iñakiri, lantokiko batek, San Pedron ibilitako batek, arraunean hasiteko esan zion. Arraunak betidanik erakartzen zuela dio Iñakik, aita ere ibilia baitzen (Iñaki Garmendia),



baina bakarrik ez zuela hasi nahi. Jon eta Egoitz berotu zituen eta hirurak hasi ziren. Joxe Mari handik pixka batera hasi zen. Laurak San Pedroko bigarren traineruan ibili ziren iaz, ARC-2 mailan. Denboraldi honetan, Jon, Egoitz eta Iñaki, mailaz igo dituzte, lehenengo traineruarekin dabilta, ACT mailan.

Aurreko denboraldian, Igeldoko beste gazte bat ere hasi zen arraunean: Jon Enbil. Bere klaseko bi ibiltzen ziren Donostiarran eta probatzea pentsatu zuen, arraunak beti erakarri izan duelako. Besteak San Pedron hasi zirela, beranduago jakin zuen, bestela, agian, beraiekin hasiko omen zen.

Joritz eta Aitor Etxeberria anaiak dira arraunlari gazteenak eta azkenak arraunean hasten. Denboraldi honetan hasi dira San Pedroko bigarren traineruan, Egoitzek eta Jonek berotuta.

### **Oriok eta San Pedrok, hasiera kaxkarra**

Orio eta San Pedrok ez dute nahi bezain ondo hasi denboraldia, azken lauen artean, lehenengo tandan dabilta eta play off postuetatik ihesean. Oriok baja asko izan ditu aurten, 7



**Egoitz Etxebeste eta Iñaki Garmendia (hankeko) eta Jon Lizarazu (baboretetik 3tik), San Pedroko bigarren traineruan ibili ziren iaz. ACTra igo dituzte aurten.**

aldaketa izan dituzte eta nabari da. Dena dela, joan den asteburuan play off-etik ateratzea lortu zuten, San Pedroren kalteko. Helburu goren bat Orio bigarren tandan sartzea dela dio Haritzek, "8garren postuan edo".

San Pedro ere antzeko helburuekin ibili da, baina orain mailari eustea du helburu bakarra, beheko postuetan



**Haritz Etxebeste (estriboretetik 3tik) Orion dabil orain dela 6 urtetatik.**

baitago, 11garren. "Hasieran bigarren tandan sartzea zen helburua, gero lasai ibiltzea. Orain inporta duen bakarra mailari eustea da", diote Egoitz, Jon eta Iñakik. San Pedron ere aldaketak izan dira; lehenengo urtean Bn ibilitako 6 arraunlari dabilta orain. Hori bai, denboraldia bukatzeko estropada ugari geratzen dira oraindik eta ikusiko da zer gertatzen den.

### **Getaria-Tolosa, Zarautzerako sailkatua**

Getaria-Tolosa Euskotren Ligako B taldean lehiatzen ari da, eta aurrena doa, jokaturako bi estropadak irabazita. Estropada baten faltan, Zarautze-

horrela izango. Azken egunera arte ez dugu jakingo. Nesken estropada horrelaxe dago". Eta gaineratu du: "Alde batetik, egia da aukera ematen digutela, baina neskongan gehiago pentsatu beharko luketeela iruditzen zait. Entrenatzen eta entrenatzen gabilta eta ez dakigu nola izango den aurtengo liga. Gero, Gipuzkoako Liga ere badugu eta hor behintzat gauzak zehaztuta daude".

### **Donostiarra, ohorezko txandan sartzeko aukeran**

ARC-1ean, Donostiarrak helburu bezala jarri zuen ohorezko tandan sartzea, lehenengo lauen artean. Helburua pixka bat handia zela dio Jonek, baina ez dabilta urruti. Bosgarren postuan mantentzen dira eta ez dute esperantza galdu: "Itsasoko estropadetan orain, goiko batzuk baino hobeto moldatzen gara eta espero dugu bakarren bat erortzea. Ea lortzen dugun hor sartzea". Ligari begira, erreko estropada asko, gehiegi daudela azaldu du eta hor nagusi dela Portugalete. "Nik argi daukat Liga beraiekin irabaziko dutela eta ACTra igoko direla ere bai". ACTra igotzeko jokatzeko dute, ARC-1 ligako lehenengo biek, ACTko 11garrenak eta Liga Gallegako lehenengoak.

### **Bigarren traineruan, harrobia sortzen**

San Pedroko bigarren trainerua bigarren tandan dabil eta 7garren postuari eusten dio. Arraunlari gehienak gazteak eta hasi berriak direnez, helburu

bakarra ahalik eta ondoen ibili, esperimentzia hartu eta ikastea dela diote Joxe Mari, Joritz eta Aitorrek. Izan ere, Gipuzkoako klub gehienetan bezala, bigarren traineruaren helburua harrobia sortzea izaten da.

### **Arraunean, zenbait hutsune**

Arraun mundua nahiko polemikoa dela argi dago eta ikusten dituzten hutsuneei buruz ere aritu ziren Igeldoko arraunlariak.

Ainitzeren arabera, nesken traine-ruek ez dute askorik iraungo. “Atzetik ez dator inor, jubenil gutxi daude. Beti arazoak daude traineruak osatzeko. Jendea ez dago konpromisoa hartzeko prest. Jendeak ez ditu parrandak eta kontu horiek utzi nahi”. Horrez gain dio, dirua tarteko, uretatik kanpora irabazten direla estropadak.

Arraunlariak gehiago zaindu behar direla ere esan zuten. Halaxe azaldu zuten Jon Lizarazuk: “Liga hau espektakulua da eta arraunlariak dira kaltetue-nak. Arrauna eraman nahi dute maila handira, baina arraunlariak mimatu gabe. Eskaparate txukuna jartzen dute, baina produktua ez dute zaintzen”.

Haritzek dirua hobeto aprobetxatu beharra azpimarratu zuen: “Nik ez dakit ze presupuesto dagoen ACTn, baina iruditzen zait esfortzu handi-goa egin dezaketela arraunlariei begira. Klubei diru gehiago eman eta arraunlariek izan ditzatela behar dituzten instalazioak, behintzat. Dirua hobeto aprobetxatuta, gauzak hobeto egin daitezke”.

Dopina ere aipatu zuten eta Iñakik eskaera argia egin zuen: “Nik nahi nuke arraunean zabiltzala esaten duzunean, jendeak ez lotzea dopina-rekin. Argi geratzeari, ateratzen diren albisteak albiste, badirela egunero egunero entrenatzen duten eta garbi dabilzan talde pila bat”.

Eta Egoitzek gazteei begira hitz egin zuen: “Arrauna sakrifikatua izan-da, jende gaztea animatzea zaila da eta horri gehitzen badiogu, dopin kontuak, dirua ez dela gastatzen behar bezala... oraindik ere zailagoa da. Nik uste, arraunlaria gehiago mimatu beharko litzatekeela eta kontu zikinak ahalik eta azkarren argitu eta dirua behar bezala erabili, gazteak motibatuzeko”.

### **Arraunlari gehiago ere izan dira**

Arraunerako zaletasuna ez da gaur egungo kontua Igeldon, eta arraunlariak ere izan dira aurretik. 70-80. hamarkadan esaterako, honako hauek ibili ziren, besteak beste: Joxe Miguel Arruti, Iñaki Garmendia, Joxe eta Patxi Etxebeste, Jose Antonio Olasagasti, Juantxo Eskudero, Joxe Angel eta Antton Zendoia, Txomin Alkorta, Imanol Illarramendi, Nikolas Izagirre, Jose Antonio Martiarena, Jabier Cruz, Joxe Luis eta Antonio Zinkunegi, eta Andres Matxain. Horiez gain, Aitor eta Xabi Alkorta, eta Iñigo Altuna ere ibili dira orain gutxira arte. (Orri Informatiboak horien berri izan du, agian baten bat faltako da eta aurrez, barkamenak horiei). ■

## Motzean

1.- Arrauna kirol gogorra da, sakrifikatua. Zergatik merezi du? Zer ematen dizue arraunak?

2.- Zein da zuen ametsa edo helburu pertsonala?

### **Ainitze Illarramendi:**

1.- Gogorra baino gehiago, sakrifikatua da. Ordu asko dira, gauza asko utzi behar izaten dira arraunagatik, baina lagunak ere egiten dituzu, beste koadrila txiki bat bezala da... engantxatu egiten du.

2.- Aurten aukera dugu eta dena irabaztea. Liga eta Kontxa irabaztea eta disfrutatzea.

### **Jon Enbil:**

1.- Egia esan oraindik ez dut deskurritu! (parrez). Gogorra da, bai. Gainera, beste kirol guztiak bukatzen direnean hasten gara gu. Jende guztia oporretan dagoenean, gu egunero entrenatzen.

2.- Eguraldiak lagunduta edo, banderaren bat lortu nahi nuke.

### **Joxe Mari Uranga:**

1.- Niri ez zait gogorra egiten. Ni gustora joaten naiz.

2.- Ondo ibiltzea, aspirazio handirik gabe.

### **Egoitz Etxebeste:**

1.- Kanpotik gogorra dela ikusten da, dietak, denbora libre gutxi, fetxak... baina azkenean da, bakoitzak nola hartzen duen. Eragina du ere nola hasten zaren arraunean. Gu Igeldoko koadrilatxo bat hasi ginen eta horrek lagundu egiten du. Dena bezala, momentu onak eta txarrak daude.



Getaria-Tolosa denboraldi bikaina egiten ari da eta Liga eta Kontxa irabazteko aukera handiak ditu.



Negua oso luzea egiten da, gogorra. Denbora guztian barruan entrenatzen, baina udara iristen denean gozamen puntu hori harrapatzen duzu.

2.- Ametsik ez dut. Hasi nintzenezan disfrutatu eta ikasi egin nahi nuen. Orain ere ahal dugun ondoena egitea da helburua. Hobera bagoaz hobe eta bestela ondo gaude gauden bezala.

#### **Haritz Etxebeste:**

1.- Niretzako ere gogortasunarena, nondik ikusten den da. Niretzako sakrifizio handia ere ez da. Egia da uda garaian, juxtu festak direnean aritzen gara eta festak diren tokietara joaten gara, baina niri ez zait gogorra egiten. Eragina du baita ere bakoitza zein etapatan dagoen, adina...

2.- Helburua beti da ahal den ondoen egitea. Ondoan dihoanari irabaztea. Bandera badator hobe, eta liga ere bai, hobeto. Jende askok dio Kontxa irabaztea dela ametsa. Nirea ez. Ez dut uste beteko nauenik. Momentuko helburuak ditut.

#### **Iñaki Garmendia:**

1.- Kirola bera ez zait gogorra egiten. Entrenatzea gustatzen zait. Hasieran bai, pixka bat gogorra egin zitzaidan gorputza jarri arte, eskuak, ipurdia... baina behin jarrita, kirola gustatzen bazaizu ez da hain gogorra. Niri gogorra egiten zait arraunagatik, nahi ditudan gauzak utzi beharra.

2.- Ametsa: traineruan doazen denek, ahal duten guztia ematea. Bukatu ondoren ez esatea gehiago egin izan banu... Horixe lortzea. Hori lortuz gero, nik uste denak gustora ateratzen direla. Emaitzak hortik etorriko dira.

#### **Joritz Etxeberria:**

1.- Niretzat gogorrena da, igande goizean 09:00etan hona etorri entrenamendura joan behar dugulako eta lagunak gaupasaz hor egotea. Entrenatzea bera ez zait gogorra egiten eta behin joanda oso gustora aritzen naiz. Giro ona dago eta oso ondo pasatzen dugu.

2.- Helburua orain, ikastea da.

#### **Aitor Etxeberria:**

1.- Fisikoki hasieran gogorra egin zitzaidan, orain jada ez. Bestalde, nik 19 urte dauzkat eta lagun guztiak juergan ikusteak eta nik ezin izateak asko izorratzen dit. Eta horrez gain, lehen futbola egiten nuen eta arraunarekin ezin izan dut konpajinatu.

2.- Ikasi eta ondo pasatzea.

#### **Jon Lizarazu:**

1.- Esan duten bezala, arrauna fisikoki gogorra baino gehiago sufrutua da uzten dituzulako, lagunak, udako oporrrak, lanetik entrenatzera zoaz... Bestela, beste kiroletan bezala gorputza jartzea da kontua.

2.- Joan den denboraldian hasi ginenean ilusioa zen traineruan ibiltzea. Lortu genuen eta helburua beteta. Aurten izan da, bigarren trainerutik lehenengora pasatzea eta bete da. Hemendik aurrera etortzen dena. Eta taldeari begira, beheko postuetatik atera eta denboraldia lehenengo mailan bukatzea. ■

# Arraunlarien datuak



**Jon Lizarazu**  
Habanakoa  
1982-09-22  
Taldea: San Pedro (ACT)  
Postua: iaz baborretik 3tik, aurten 5etik  
Arraunean, 2. urtea



**Egoitz Etxebeste**  
Ganbaetxekoa  
1984-01-12  
Taldea: San Pedro (ACT)  
Postua: iaz baborretik hankeko, aurten 6tik, 3tik, 4tik...  
Arraunean, 2. urtea



**Iñaki Garmendia**  
Txoxakoa  
1984-06-17  
Taldea: San Pedro (ACT)  
Postua: iaz estriborretik hankeko, aurten 3tik, 4tik eta 5etik  
Arraunean, 2. urtea



**Haritz Etxebeste**  
Tolaretxekoa  
1983-05-23  
Taldea: Orio (ACT)  
Postua: estriborretik 3tik eta 4tik  
Arraunean, 6. urtea



**Aintze Illarramendi**  
Agiti txikikoa  
1986-03-26  
Taldea: Getaria-Tolosa (Liga Euskotren-Emakumezkoen Liga)  
Postua: azken aldian, estriborretik 3tik  
Arraunean, 6. urtea  
Hondarribiatik Getaria-Tolosara aldatu da aurten.




**Jon Enbil**  
Arretxekoa  
1988-01-08  
Taldea: Donostiarra (ARC-1)  
Postua: iaz baborretik 3tik, aurten 6tik  
Arraunean, 2. urtea



**Joxe Mari Uranga**  
Amezti Garaikoakoa  
1978-09-03  
Taldea: San Pedro (ARC-2)  
Postua: proel  
Arraunean, 2. urtea



**Joritz Etxeberria**  
Ganbaetxekoa  
1988-05-31  
Taldea: San Pedro (ARC-2)  
Postua: baborretik 2tik  
Arraunean, 1go urtea



**Aitor Etxeberria**  
Ganbaetxekoa  
1991-07-19  
Taldea: San Pedro (ARC-2)  
Postua: estriborretik 2tik  
Arraunean, 1go urtea

**H**autagaien zerrenda irekia perfektua zen, adierazgarria. 23 pertsona. Ia erdia emakumeak; igeldotar betikoak eta denbora bat dela hona etorriak; dena jende prestatua; karrera dun asko baina baita ofizioetakoak ere, baserritarrak barne; herri kontseilu zaharreko partaide batzuk bere esperientziarekin; denak gazteak baina helduak; igeldotarren artean ezagunak; gehienak herriko jai eta hainbat eginkizun antolatzen ibiliak, ...

Zerrendatik, hogeita hiruren artean zazpi hautatuenak (Herri Kontseilua osatzen dutenak: emakume bat eta sei gizon) botoen %55 jaso dute; botoak beregan konzentratu egin dituztela esan deiteke. Beraz, H.K. berriak ondo ordezkatzeko gaituela esan dezakegu.

Baina, ez al da harrigarria hamar emakumeek, ia zerrendaren **erdia izanda**, botoen **herena bakarrik** jasotzea, eta gizonen beste 2/3a? Gainera, hartutako boto horiek oso sakabanaturik (ez konzentratuak) daude. Emakumeen artean, hautatua gertatu dena kenduta, boto gehien atera duena % 4a izan da.

Zer gertatu ote? Bakoitzak arrazoi sendo bat baino gehiago izango du bere hiru botoen zergatia esplikatzen. Ziur. Baina zergatik gehienak, emakumezkoak barru, botoa bereziki gizonetako eman diegu? Ez al zen ba berdintasuna aspaldi iritsi

# Nolatan? Igeldoko Herri Kontseilu berrian, zazpitik, emakume bakarra?

“ Ez al dugu ikusezinak izaten jarraitzen (nahiz eta burka ez eraman; barkatu esajerazioa baina horrela etorri zait burura), gu beti prest, hain langile, hain borondate handikoak, hain...? ”

Emakumeon gaineko kristalezko sabaia hor jarraitzen du ”

gure lurraldera eta desberdintasuna gure amonen historia izan? Gaur eguneko emakume gazteak ez al dute zeharo gairatuta arazo hau? Hona hemen egin beharreko hausnarketa ohartua, esplizitua.

Ez al dugu **ikusezinak** izaten jarraitzen (nahiz eta burka ez eraman; barkatu esajerazioa baina horrela etorri zait burura), gu beti prest, hain langile, hain borondate handikoak, hain ...? Emakumeon gaineko **kristalezko sabaia** hor jarraitzen du, gizartean eta baita gure barnean, nahiz eta ez ikusi, nahiz eta ez pentsa. Horregatik, denok, gizon eta emakume, (baina, batez ere emakumeok, zeren gu geuk ez badugu egiten nork egingo du?) hausnarketa konziente bat egin behar dugu gure baliotasuna azalduarazteko. Eta ez pentsatuz gauzek, bere logikaz eta bere garrantziaz, jarriko gaituztela dagokigun tokian.

**B.E.**



**Igeldoko  
Herri  
Kontseilua**

Laguntzailea:

